

<i>Berdintasun Zerbitzua</i>		<i>Getxoko Udala</i>
Gaia: BERDINTASUN BATZORDEAREN BILERA		

Bileraren datuak:

Data: 2019-12-12

Tokia: RKE

Ordua: 17:00etatik 19:00etara

Bertaratutakoak:

Enpresa-sarea: Izaskun Rama

Berritzegune: Rosario Franco

Eskuz-esku: Marta Ortiz

Bilgune feminista: Uxune Iriondo

EH Bildu: Cristina Zamora

EAJ-PNV: Keltse Eiguren

EP: Paula Amieva

PSE: Estibaliz San Sebastian

LAB: Karlos Goñi

Presidentea: Carmen Diaz

Idazkaria: Bego García

Egon ez direnak:

Mujeres con Voz

Gizatiar

PP

Gai-zerrenda

- Aurreko akta onestea. Azken bilerako akta atxiki da.
- 25N kanpainaren ebaluazioa
- Indarkeria-protokoloa
- Batzordearen sistematizazioa eta biziberritzea

- Galderak eta eskaerak

Aurreko akta onestea

Aurreko bilerako akta, 2019ko urriaren 23koa, onetsi da.

25N kanpainaren ebaluazioa

Carmen Diaz Berdintasun zinegotziak 25N kanpainaren emaitzen berri eman du. Azkenean, 300 establezimendu inguru atxiki dira "Indarkeria matxistarik gabeko espazioen sarea" kanpainara. Urtarrilean ekimen horri helduko zaio berriro, sarea bi helburu jakin hauekin sustatzeko:

- Atxikitako establezimendu-kopurua handitzea
- Establezimenduentzako xedaturiko sentsibilizazio-materiala sortzea.

PSEko ordezkariak eta enpresa-esparruko ordezkariak oso esperientzia positibo gisa baloratu dute kanpaina.

EHBilduko eta Bilgune Feministako ordezkariak sarearen diagnostiko bat egitea proposatu dute; bertan, establezimendu mota, sexuaren arabera banandutako osaketa, horietan lan egiten duten langileen lan-baldintzak eta abar jasoko dira.

Indarkeria-protokoloa

Carmen Diazek adierazi du lan prozesu bat ireki dela emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako jarduketa- eta koordinazio-protokoloak eta Getxoko Udalak indarkeria sexisten kasuei aurre egiteko duen erantzun publikorako protokoloa berrikusteko. Horiei, tokiko jarduketan protokoloa gehitu beharko zaie, indarkeria matxistaren biktimei ordainak emateko (Berdinsarean onartu berri den neurria).

Xedea protokolo bakarrean aurreko hiru batzea da, EDE fundazioaren laguntza teknikoarekin eta Estatu-itunetik jasotako diru-laguntzaren finantzazioarekin.

EHBilduk proposatu du kontuan har dadila Emakumeen Mundu Martxako protokoloa.

Carmen Diazek adierazi du negoziazio-mahai paraleloak osatuko direla gaur egun protokoloan parte hartzen ez duten eragileekin. Getxoko udalerriko Tartekari sarea kontuan hartzea proposatu da. Sare horrek, Batzordean dauden hainbat eragile barne hartzen ditu, izan ere, onik atera diren emakumeekin esku hartzen dihardute eta protokoloaren berrikuspenean parte hartu dezakete, emakumeen ibilbidean duten esperientzia ekarrita.

Estibaliz San Sebastianek, PSEko ordezkari eta Tartekari agenteak, anbulatorioen egoera azpimarratu du, izan ere, Osakidetzak ez du antzemandako eta trataturiko indarkeria-kasuen inguruan ohartarazi.

Uxune Iriondok, Bilgune Feministatik, esan du larrialdi-egoera baten aurrean gaudela eta emakumeak ez gaudela babestuak, eta berehala jokatu behar dugula. Bada sektore bat neutralizatzen duena, gizonena, eta haien ganean/haiekin batera jardun beharko da, kanpainak eginez eta abar. Era berean, adierazi du protokolo honen berrikuspenean agente guztiek hartu behar dutela parte.

EPko ordezkariak, Paula Amievak, Tartekariz gain, negoziazio-mahai paralelo horietan udalerriko elkarteek parte har dezatela proposatu du. Bestalde, baliabideetara iristen ez diren emakumeak daudela azpimarratu du.

Berritzeguneko ordezkariak bere esparrutik egin dituen jarduketan berri eman du; esate baterako, Getxoko, Uribe Kostako, Bakioko eta Mungiako zentroetan 100 pertsonen jazarpenaren, bullyingaren eta generoaren inguruan emandako prestakuntza. Era berean, adierazi du elkarbizitzari eta generoari buruzko hileko mintegiak daudela.

Berdintasun teknikariak, Bego García, konponketa-printzipioaren berri eman du.

Biktimen konponketa-printzipioak esan nahi du **biktimak** beren eskubideen urraketa jasan aurretiko egoerara **itzultzeko** beharrezkoak diren ekintzak jarri behar direla martxan. Indarkeria matxistaren biktimen kasuan, xedea da biktimen bizitza-baldintzak nabarmen hobetzea. Horretarako, ezinbestekoa da urratu zaizkion eskubideak berreskuratzea eta egindako kalteak konpontzea. Era berean, indarkeria-egoerei aurre egiteko duen gaitasuna eta autonomia indartuko duen ahalduntze-prozesua babestu behar da.

JUSTIZIA KONPONTZAILEAREN OINARRIZKO PRINTZIPIOAK

1. lehengoratzea
2. kalte-ordainak ematea
3. birgaitzea
4. asebetetzea
5. berriz ez gertatzeko bermea

Batzordearen sistematizazioa eta biziberritzea

Carmen Diazek adierazi du Getxoko Berdintasun Batzordea indarberritzeko parte-hartze prozesu bat ireki dela.

Xedea: Berdintasun Batzordea indartzea eztabaidatu, proposatu, erabaki eta berdintasuneko politika publikoetan eragiteko gaitasuna izango duen parte hartzerako gune dinamiko eta berritu bat bihurtu dadin.

Prozesua martxoan amaituko da, eta besteak beste, elkarrizketak egingo zaizkie azken urteotan Berdintasun Batzordean parte hartu duten pertsoneri. Zehazteke dago nork hartuko duen parte banakako zein taldekako elkarrizketa horietan.

Prozesu horrek, bestalde, berdintasunaren arloan eta parte-hartze sozio-politikoaren arloan funtsezko ezagutzak eskuratzea barne hartzen du. Zentzu horretan, asteazken arratsaldeetan izango dela erabaki den prestakuntza bat eskaini nahi da.

Paula Amievak titularrak zein ordezkariak bertaratu daitezela proposatu du.

Galderak eta eskaerak

EPko ordezkariak 2018ko kudeaketa-planaren inguruan galdetu du.
Erantzun du oraindik ez dagoela eginda.

Hurrengo batzordea 2020ko otsailaren 6an.